



## **LEHEN HEZKUNTZAKO 3. zikloa: IPUIN SARITUA**

### **TARTALO ETXEA. Manel Diaz Urdaniz**

Bazen behin Joy izeneko neska bat Estatu Batuetan bizi zena eta Nafarroako barnetegi batera etorri zena, euskara ikasteko. Mendialdea barnetegia aukeratu zuen. Leku horretan orain dela asko etxe bat zegoen, Tartalo izenekoa. Bertan familia bat bizi izan zen: Josemari Tartalo, bere emaztea, Lamia izeneko lami berezia, eta bi seme-alabak. Josemari hil zenean, Lamiak bere begi magikoa ezkutatu zuen etxe barruan, eta ez zion esan inori.

Joy iritsi zenean, ez zeukan lagun askorik, bakarrik mutil bat, Ander izenekoa. Bioi geografia eta historia asko gustatzen zitzaizkienez, herriko eta inguruko istorioak aztertzen hasi ziren. Herriko etxeetan galdetu zuten ea zein zen etxerik zaharrena eta, kasualitatez, Tartalo etxea zela esan zieten, hau da Mendialdea. Etxe batean esan zieten gauza arraroak gertatzen zirela etxe horretan eta aiton zaharrek bertan altxor bat zegoela esaten zutela. Anderrek altxorra bilatzea proposatu zion Joyri eta Tartalo etxearen liburutegira joan ziren ikertzera. Liburu zahar bat aurkitu zuten. Ez zen liburu normal bat, Lamiaren egunerokoa zen. Txunditurik geratu ziren biak ikusten ari zirenekin. Ez zioten inori ezer esan eta gelan sartu ziren txirrina entzun eta gero.

Eskola bukatu eta liburutegira abiatu ziren. Irakurtzen hasi ziren:

*“Nite senarra maitea hil da, ezin dut bizitza imajinatu bera gabe, gainera ezin dut seme-alabengan konfiantza izan. Pena handiarekin esan behar dut ez dutela ezertarako balio eta hemendik alde egingo dutela.”*

*“Ezin diot esan inori zer egingo dudan begi magikoarekin. Nonbait utzi behar dut, pertsona berezi batek aurkitu arte. Pertsona hori azkarra eta garbia izango da.”*

*“Beiha izarra gabon ama roberto ramon emaztea noiz asto pitzadura aita lamia aurkitu talo epaiza gaua ilargia arrano naikoa.”*

Harrituak zeuden, lehenengo parte oso ongi ulertu zuten, baina bukaera beste kontu bat zen. Ez zuten ezer ulertzen...bueltak eta bueltak ematen hasi ziren eta orduan klik! Joyk ikusi zuten:

*“Beiha izarra gabon ama roberto ramon emaztea noiz asto pitzadura aita lamia aurkitu talo epaiza gaua ilargia arrano naikoa.”*

—Begira Ander, lehenengo letrak hartzen baldin baditugu, esaldi txiki bat dugu “bigarren apalategian”— esan zion Joyk.

—Egia! Baina non?— galdetu zion Anderrek.

—Leku berean, liburutegian— esan zion Joyk.

Begiratu zuten bigarren apalategian eta ez zuten ezer aurkitu ezer...la-ia utzi zuten, baina momentu horretan Anderrek asmatu zuen non begiratu...

—Begira Joy, “aita lamia aurkitu” jartzen du egunerokoa, horrekin lotutako zerbait aurkitu behar dugu. Apalategian egurrezko kutxa txiki bat ikusi zuten, lami txikiak tailatuak zituena. Kutxa hartu, ireki eta ...paper zahar batean irakurri zuten:

*“Tartaloren begia lamiaren bizitza. Ireki azpian dagoan atea”*

Joy eta Ander satora jaitsi ziren. Atea aurkitu zuten eta hitz mahikoak esandakoan, jiuuuuuurrr! atea ireki zen. Eta...hor zegoen!!! Begi magikoa kutxa batean, mezu honekin:

*“Aurkitu baldin baduzu altxorra pertsona berezia zarela pentsatu behar dut.”*

*“Kontu izan, botere handi bat duzu eskuetan. Pentsa ezazu eta gero egin.”*

Eta egin zuena... BESTE ISTORIO BAT DA!!